



**EUSKOTREN**  
APP OFIZIALA

**APP**  
**OFIZIALA**


euskotren 



# AURKIBIDEA

1. Moduaren aukeraketa
2. Ordu-tegi bilaketa
3. Ordu-tegien emaitzak
4. Menu nagusia
5. Online/ offline modua
6. Gustokoenak
7. Planak
8. Moduak instalatu
9. Hizkuntzak
10. Nire datuak
11. Laguntza
12. Entzuten zaitugu
  1. Geltokiak
  2. Hobetzen lagun iezaguzu
  3. Zaindu ezazu zure tren / tranbia
13. Irten
14. Moduaren azpiko menua
15. Larrialdi zerbitzuetara deia

**((112))**  
SOS DEIAK






# 1. MODUAREN AUKERAKETA

Behin aplikazioa instalatua eta taxutua dagoenean, aplikaziora sartu bakoitzean pantaila printzipalean agertuko zaizkigu aurretik instalaturiko moduak.

Ordutegiren bat bilatzeko, lehenik garraibide bat aukeratu behar dugu.

Instalazioan garraibide bakarra aukeratu izan ezker, pantaila hau ez zaigu agertuko eta aplikazioak zuzenean ibilbide aukeraketaren pantaila erakutsiko digu.





## 2. ORDUTEGI BILAKETA

Behin garraibidearen hautaketa egin ostean, “irteera” eta “helmuga” izeneko laukitxoak bete behar ditugu bertan klikatuz.


Ordutegi bat bilatzeko “data” eta “ordua” irizpideak erabili nahi baditugu aldiz, “ordutegiak” izeneko botoia sakatu behar dugu pantailaren behealdean.



**Abisuak:** Garraio-moduei buruzko intzidentzien abisuak ikono honen bitartez adieraziko dira. Ikonoa sakatu ezkerreko, abisuaren testua agertuko zaigu eta ikonoaren atzeko alde grisaz izatera pasako da. Abisurik ez badago, ez da ikonorik agertuko



### 3. ORDUTEGIEN EMAITZAK



Geratzen den denbora kontsultatu: aukeratutako zerbitzua irteteko geratzen den denbora errealera adierazten du.

Gustukoenen zerrendatik kendu edo txertatu: egindako bilaketa Gustukoenen zerrendan txertatzen du. Ikonoa aktibo badago, sakatzerakoan bilaketa Gustukoenen zerrendatik aterako du.

“Plan”-etik kendu edo txertatu: egindako bilaketa planen atalean txertatzen du. Ikonoa aktibo badago, sakatzerakoan bilaketa planen ataletik aterako du.

Irteera eta helmuga elkar trukatu.

Hurrengoak erakutsi: pantailako hurrengo emaitzak erakusten ditu.




## 4. MENU NAGUSIA

Menu nagusira heltzeko, goiko aldean ezkerrean dagoen botoia sakatu behar da:

**Oharra:** aplikazioa “online moduan” badago baina datu konexiorik ez badauka, menuaren ikonoa gorria izatera pasako da.

“Menu” botoia sakatzean, pantailaren ezker aldean agertuko da menu nagusia.





## 5. ONLINE / OFFLINE MODUA

Online eta offline modua menu printzipaleko botoiaren bidez aktibatu eta desaktibatu daiteke.

Oharra: aplikazioak online modua aktibatuzik daukanean soilik kontsumitzen ditu datuak. Online moduak eta dagokion internet konexioak aparteko gastuak eragin ditzake norberaren datu tarifaren arabera.






## 6. GUSTOKOENAK

Gustukoenen pantailan, askotan kontsultatzen ditugun ibilbideak (irteera-helmugak) azaltzen dira.

Gustukoaren informazioa kontsultatzeko, testuaren gainean sakatu behar da. Informazio hau momentuko egun eta orduarekin agertzen da.

Editatzeko botoiarekin (arkatzaren ikonoa) gure ibilbide gustukoa kontsultatu dezakegu, nahi dugun data eta ordutegiarekin. Gustukoa ezabatzeko "x" sakatu behar da.








## 7. PLANAK

Planen pantailan agertuko zaizkigu momentu batez gorde nahi ditugun planak.  
Plan baten barruan ibilbidea (irteera-helmuga), data eta ordua sartzen dira.  
Plan baten informazioa ikusi nahi izan ezkerreko, testuaren gainean sakatu behar da.  
Plana ezabatzeko "x" a sakatu behar da.






## 8. MODUEN INSTALAZIOA

Moduen instalazioaren pantailan, garraiobideak aktibatu edo desaktibatu ahal izango ditugu.


Garraiobide bakoitza aktibatu edo desaktibatzeke eskuinean dauden botoiak sakatu behar dira. Kolore urdinak, aktibatutik dagoela esan nahi du, eta grisak, aldiz, desaktibatutik dagoela.





## 9. HIZKUNTZAK

Hizkuntzen pantailatik hizkuntza aldatu ahal izango dugu. Aldi bakoitzean hizkuntza bat hautatu daiteke soilik.





## 10. NIRE DATUAK

“Nire datuak” izeneko pantailan gure datuak gehitu ahal izango ditugu eta honela gainerako zerbitzuak erabili ahal izango ditugu.


## 11. LAGUNTZA

Menuan dagoen “laguntza” botoiaren bidez, aplikazioaren laguntza dokumentuetara iristen gara. Bertan, aplikazioaren argibide liburua aurki dezakegu.



## 12. ENTZUTEN ZAITUGU

Botoi honen bidez gainerako aukeretara joan gaitzke:



### 12.1. GELTOKIAK

Pantaila honetan aktibaturik ditugun moduetako geltoki guztiak agertzen zaizkigu eta hauen kokapena, hurrengo irteerak, irisgarritasuna... kontsultatu eta Euskotreneko arreta zerbitzura deitzeko aukera ematen digu.

### 12.2. HOBETZEN LAGUN IEZAGUZU

Bertatik keza bat, erreklamazioren bat edota esker bat bidali dezakegu Euskotreneko zerbitzuetara.

*Oharra: horretarako lehendik beteta izan behar duzu "nire datuak" ataleko informazioa.*

### 12.3. ZAINDU ZURE TRENA / TRANBIA

Aukera honek, trenean gizalegezkoa ez den jarreraren bat gertatzen bada abisua emateko aukera ematen digu.

Adibidez, erretzen dabilen jendea, zerbait puskatzen dabilena...

Egoera hauek trenean bertan ala geltokian gertatzen ari diren adierazteko aukera ere ematen digu.

*Oharra: horretarako lehendik beteta izan behar duzu "nire datuak" ataleko informazioa.*



## 13. IRTEN

Aplikaziotik ateratzeko aukera ematen digu. Ez ditu gustukoena, moduak eta planak ezabatzen.





## 14. MODUAREN AZPIKO MENUA

Behin modua aukeratu dugunean, pantailako azpiko aldean honako menua agertuko zaigu:



- 1 Lineak: hautatutako moduak linea desberdinak baldin baditu aukera hau azalduko da. Bestela “mapa” aukera azalduko zaigu.
- 2 Ordutegia: botoi hau sakatzean ordutegien bilaketa aurreratura bideratzen digu aplikazioak. Bertan, ordua eta eguna bezalakoak aukeratu ahal izango ditugu.
- 3 Entzuten zaitugu: bestelako informazio eta funtzioak.
- 4 SOS Deiak: larrialdi zerbitzuetara deitzen du, eta gainera, zure datuak bidaltzen dizkio zuzenean.  
*Oharra: horretarako lehendik beteta izan behar duzu “nire datuak” ataleko informazioa.*

Menu honetako edozein aukera sakatuta, hurrengo pantailan bestelako menu hau azalduko zaigu:



Bertan, aurreko funtzioez gain “Aldaketa” izeneko botoia azalduko zaigu. Honekin, garraiobidea alda dezakegu edota hasierara eramango gaitu.

Urdinez markatuta dagoen botoiak aktibo dagoela adierazten du.



## 15. LARRIALDI ZERBITZUETARA DEITU



Aplikazioko edozein pantailatik dago aukera SOS Deietara deitzeko. Ikonoa sakatu ostean, baieztapen beste pantaila bat agertuko zaigu nahigabeko deiak saihesteko.

Aurretik zure datuak txertatu ez badituzu, deia egiteko aukera izango duzu baina ez dira zure datuak automatikoki bidaliko.

Zure datuak bete badituzu ordea, deia egiterakoan zure informazioa bidaliko da Larrialdi zerbitzuetara eta Euskotreneko zerbitzu zentraletara, errazago lagundu ahal izateko.

Aplikazioak bidaltzen duen informazioa izena, telefono zenbakia, GPS zenbakia eta zein trenetan zauden da.



euskotren 